

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Jarduera sailkatuen espedientea, Bidezarreta, 6an udal hiltegiaren jarduerarako, Laudio Udalak sustatuta

Euskadiko Ingurumenaren Babes Orokorreko 3/1998 Legeko 58.2 artikuluan xedatutakoa betez, ALHAOn dagokion iragarkia argitaratuta agertzen den egunaren biharamunetik zenbaitzen hasita, 20 eguneko epean zehar, aipatu den jarduerari dagokion espedientea jende aurreko erakusketa aldiko izapideetan egongo da, ustezko kalteren bat dutenek alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Espedientea kontsultatu ahal izango da astelehenetik ostiralera, Herriko Plaza, z/g, 3. solairuko Hiri eta Landa Garapen Arloko bulegoetan, 08:00-14:00 ordutegi barruan.

Laudio, 2020ko maiatzaren 26a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE